



Rafael Edwards / La Tercera

Klase ertaina jomugan

Gizarte klaseen bilakaera Europa mendebaldean eta garapen bidean diren herrietan

Analisiak

Eguzki Urteaga soziologoa • Imanol Esnaola Gaindegiko koordinatzailea

Langile nortasuna lausotzeko bidea

Europa hegoaldeak bizi duen krisi ekonomikoak gizarte ezberdintasunak handitu ditu, eta klase ertain bezala definitutako multzo zabal eta malgua txikitu. Aldiz, garapen bidean dauden herrialdeetan hazi egin da pribilejio berrien eta kontsumo aukera tentagarrien jabe bilakatu den biztanleria.

Egonkortasun faktoretzat hartua, klase ertainaren bilakaera eztabaida-iturri agortezina da, definizioak berak eragiten dituen desadostasunek erakusten duten moduan. Kolektibo horren iragan, orainaldi eta balizko etorkizunari buruz aritu gara: historiari begiratu diogu lehendabizi, Euskal Herriko egoera sozio-ekonomikoari ondoren –Eguzki Urteaga soziologoaren eta Imanol Esnaola Gaindegiko koordinatzailearen eskutik– eta munduko hainbat herrialderi gero.

■ **Jon Torner Zabala**




Aristoteles filosofo eta zientzialari greziarrak esan zuen komunitate politiko batek, ona izan nahi bazuen, botereak klase ertainaren esku behar lukeela, muturreko joerak baztertu, egonkortasuna bermatu eta hazkunde ekonomikoa sustatzen duelako. Kristo aurreko IV. mendea zen.

Henry Ford (1863-1947) ekoizpen-kate modernoaren aita jakitun zen kontsumismoak

bakea berma zezakeela, bere langileei soldatak igo eta fabrikatzen zituzten autoen bezero bilakatu zituenean. Jakitun dira Davoseko ekonomia foroan klase ertainaren patuaz mintzo diren agintariak, eta jakitun zen Barack Obama AEBetako presidentea, otsailaren 13ko diskurtsoan klase ertaina biziberritzeko neurriez hitz egin zuenean. “Hori da gure benetako hazkunde-makineria”, esan zuen.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Azaleko irudia:** Rafael Edwards / La Tercera · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.375. zenbakiarekin banatua, 2013ko ekainaren 30ean).



Klase ertaina amerikar bizitza estiloan inspiratutako kolektibo bezala ikusia izan da. Haien baliabideen gainetik kontsumitu eta gizarte mugikortasun sinbolikoa lortzen duten komunitateak hartzen ditu bere baitan. Klase altuagoko taldeekin mimitizatu nahi izatea egotzi izan zaie maiz.

KLASE BANAKETA: HISTORIA HURBILA

Karl Marx filosofo alemaniarrek (1818-1883) termino ekonomikoetan soilik oinarrituta sailkatu zituen klase sozialak. Bi nabarmentzen zituen guztien gainetik: burgesia kapitalista eta langile-proletarioak. Burgesia ekoizpen medioen jabe da eta proletalgora lanaren jabe. Batak bestea explotatzen duen heinean, klase gatazka etengabekoa da.

Max Weber ekonomialari eta filosofoak (1864-1920) hiru dimentsio bereizi zituen: klasea (botere ekonomikoa, diru-sarrerak), estatusa (prestigio soziala, pribilegioak) eta botere politikoa. Hiruen uztarketak zehaztuko du norbanakoren posizio sozio-ekonomikoa, gerora deitu zaion bezala. Esaterako, sindikatuko lider batek agian ez du diru-sarrera handirik izango, baina botere-ekalan posizio altuagoa izango du sarre-berdintsuak dituen beste pertsona batek baino. Gaur egun eskema hori hartzen da oinarri

eta denboran aldatzen joan diren beste elementu batzuk gehitzen zaizkio, lan mota, prestakuntza eta hezkuntza maila adibidez.

1945etik 1975era kapitalismoaren urrezko urteak bizi izan ziren Europako mendebaldean: ongizate gizartearen eredu sakonduz, gizarte-ko sektore oso zabalek munduan ordura arte lortutako bizimaila handiena erdietsi zuten. Eta klase ertaina zen elementu orekatzailea. Sozialki eta profesionalki integratutako taldea zen, ikasketak maila altuagoa zuten, politikoki moderatuak ziren, gobernuko alderdiak bozkatzeko zituzten...

1980ko hamarkada hasieran, Margaret Thatcher Erresuma Batuko lehen ministro zenean eta Ronald Reagan AEBetako presidentea, planteamendu neoliberalak nagusitu ziren eskuin zein ezkerreko alderdietan. Gobernuak gastu publikoa murriztu zuten, lan merkatua desregulatu, banku zentralak independente bilakatu... Finan-

tza sektoreak geroz eta gehiago bere logika eta interesen arabera funtzionatuko du. Ostera, gobernuek baliabide gutxiago izango dituzte jarduera ekonomikoan eragiteko.

2008an abiatutako krisiaren testuinguruan ekonomia globalizatzen ari da, eta ongizate estatua sufritzen ari den erasoek kolektibo ahulenak bereziki baina oro har gizarte osoa kolpatzen ari dira etengabe. Osasun sisteman edota hezkuntzan aplikatutako austeritate politikek jendartea hauskorragoa bihurtu dute, eta hor kokatzen da klase ertainaren gainbeherari buruzko eztabaida, bizi kalitatea eta segurtasun ekonomikoa ardatz.

ZERTAZ ARI GARA 'KLASE ERTAINA' DIOGUNEAN?

Lankidetzeta eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen (OCDE) arabera, egunean 10 eta 100 dolar (7,50-75 euro) artean gastatzen duten herritarrak dira klase ertainekoak. Munduko Bankuak ere parametro ekonomikoen arabera sailkatzen ditu klaseak, baina gizarte adierazleak (etxebizitza, lanbidea, hezkuntza, IKTetarako sarbidea...) ez dira alde batera utzi behar. Ez dago definizio bakarra ematerik, faktore ugari daudelako eta horiek desberdin interpretatzen dituelako analista bakoitzak. Herrialde batetik bestera aldatu egiten dira, baita gizarte beraren barruan ere, unean uneko fluxu sozio-ekonomikoen erritmoan.


Kapital ekonomikoaren araberrako sailkapenetan, pertsona bat klase batekoa ala bestekoa den zehaztean, hura bizi den etxebizitzako diru-sarrerera guztiak hartu ohi dira aintzat. Alboko zerrendak herrialde bakoitzean klase ertaineko zenbat biztanle dagoen erakusten du. Familia-unitateko diru-sarreraren arabera egin dira kalkuluak, herrialde bakoitzeko sarreraren batez bestekoarekiko. Klase ertaina litzateke batez besteko diru-sarreraren %70 eta %150 artean dituzten familietako kideak.

Klase ertaineko biztanle kopurua (%)

Kanada	48,2
AEB	41,9
Brasil	35,7
Errusia	38,0
Taiwan	50,5
Hego Korea	47,1
Australia	43,1
EUROPAR BATASUNA	52,5
Hungaria	63,4
Txekiar Errepublika	63,1
Eslovakia	61,7
Herbehereak	61,5
Danimarka	60,8
Eslovenia	59,1
Frantzia	58,7
Austria	58,3
Suedia	57,4
Luxenburgo	56,9
Belgika	55,1
Finlandia	55,0
Alemania	53,0
Txipre	51,4
Polonia	51,1
Malta	50,8
Italia	50,6
Grezia	50,2
Irlanda	49,0
Portugal	48,3
Erresuma Batua	48,2
Espainia	47,5
Errumania	45,6
Estonia	43,2
Bulgaria	42,2
Lituania	41,4
Letonia	35,4

Iturria: *La Vanguardia* (El mundo de la clase media dossierra; 47. zenbakia, 2013ko ekaina). Crédoc, SILC, LIS, STATEC, Eurostat eta OECD erakundeen datuetan oinarrituta.

Ehuneko horiek (%70-150) oinarritzat hartuta, eta Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako etxebizitza bakoitzaren urteko batez besteko diru-sarrerera –errenta– garbitik abiatuta, klase ertaina non kokatuko litzatekeen irudikatu dugu.



Hainbat analistak dioenez, balore erreagoak lortze aldera, batez besteko errenta baino, errentaren balio zentrala hartu behar da kontuan, erdi-erdian dagoena. Balio zentrala kalkulatzeko herrialde bateko familia guztiak diru-sarreraren arabera zerrendatzen dira. Gainera familien erdia eta azpitik beste hainbeste dituen familieren errenta da balio zentrala. Frantziako erakundeek maiz erabiltzen dituzte bi zifrak. INSEE estatistika institutuaren arabera, 2010ean etxebizitza bakoitzeko batez besteko diru-sarrera 35.220 eurokoa zen, eta balio zentrala 28.910 eurokoa. Alegia, askoz ere gehiago direla batez bestekoaz azpitik dauden familia-unitateak, gainera daudenak baino.

Beste adierazle batzuek errenta banaketaren desoreka neurtzen dute, etxebizitzaren arteko ezberdintasunak argiago azaleratzen dituen Gini Koeffizientea da horietako bat. “0” litzateke berdintasun perfektua (etxebizitza guztiak diru-sarrera kopuru bera dute) eta “1” desberdintasun perfektua (etxebizitza bakarrak ditu diru-sarrera guztiak). Balio hain estuetan mugitzen denez, ehunen bateko aldea esanguratsua da. Espainiako Estatuan, esaterako, 2007an desberdintasuna 0,31 puntukoa zen eta 2010ean nabarmen handiagoa: 0,34koa. Euroguneko gainerako herrialdeetan desberdintasun gutxiago dago, baina

goranzko joera orokorra da: aberatsak geroz eta aberatsago dira, eta pobreak pobregoko.

Familia-unitateen diru-sarrerak geroz eta txikiagoak eta ezberdintasunak nabarmenagoak, klase ertaina orduan eta kolpatuagoa, bizitza kalitate murriztua den heinean. Europa mendebaldean eta AEBetan txarrerako joera hori sumatzen da, eta alderantzizkoa garapen bidean diren herrialdeetan, berdintasunaz hitz egitea gehitxo litzatekeen arren.

Europa hegoaldean, Frantzia eta PIGS izenpean bildutako Portugal, Italia, Grezia eta Espainian, klase ertaina gogor jo du krisiak. Merkatuaren globalizazioak eta defizit fiskala murrizterako bideratutako ongizate estatuaren austeritate politikek –murrizketek– eragin negatiboa izan dute kolektibo horrengan, agian gehiago sektore publikoko langileengan, baina jendarte osoarengan oro har.

Aldiz, globalizazioak ekonomiaren eta zehazki klase ertainaren hazkundera bultzatu du garapen bidean diren herrialdeetan, Latinoamerikan (Mexiko, Txile, Kolonbia, Peru...) eta BRICS deitutakoetan (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika). Datozen 20 urteetan 3.000 milioi pertsona gehiago iragango da klase ertainen sektore zabal eta malgura. ■

Eguzki Urteaga

Soziologoa

“Desklasifikazioak, estatusa erabat bermaturik ez izateak, antsietatea areagotzen du”

Eguzki Urteaga EHUKo soziologia irakaslea da, eta Frantziako CNRS laborategiko kide den IKER zentroko ikerlaria. Klase ertainaren patuaz galdetuta, langile mugimenduaz hitz egin digu, nortasun kolektiboa berreskuratu beharraz, indibidualismoa gainditzeaz, kapital soziala indartzeaz, betiere luze irauten ari den krisiaren ingurumarian.

JOSU CHAVARRI



“Langabeziak edota familiaren egonkortasuna apur-tzeak momentu batean ala bestean kapital soziala ahulduko du”.

Nola definituko zenuke klase ertaina?

Ez dago definizio bakarra ematerik. Errentaren arabeko definizioa eman dute batzuek, baina hain da irizpide erlatiboa... Gizarte batetik bestera alde handia egon daiteke, baita gizarte beraren barruan ere. Unean uneko fluktuazioak kontuan izan behar dira. Oso arriskutsua da errenta irizpidez hartzea. Frantsesez adibidez, analista askok ez dute “klase ertaina” terminoa erabiltzen, “klase ertainak” (*classes moyennes*) baizik, pluralean.

Inkestek diotenez, benetan hala direnak baino herritar gehiago sentitzen dira klase ertainekoak...

Luzaroan, eta hori Marxekin argi ikus daiteke, langile klasea eta oro har klase sozialak definitzen ziren norberak produkzio sisteman zuen lekuaren arabera. Horrek zehazten zuen nortasun kolektiboa.

Aldiz, ongizate estatua garatu eta langile klasearen lan baldintzak eta bizi maila hobetzen joan diren neurrian, produkzioaren arabera

baino, kontsumoaren arabera definitu da langile taldeen identitatea. Langile ofizioa izan arren, bere burua klase ertaineko kide bezala ikusten du jendeak. Langile mugimenduaren nortasuna ahuldu egin da.

Ongizate estatua kolokan al dago?

Ongizate estatua baino, ongizate estatuak aipatuko nituzke, bilakaera historikoak oso desberdinak izan baitira. Europako herrialde askotan, Bigarren Mundu Gerra amaitu ondorengo urtetan, 1945-1975 artean, ahalegin handiak egin ziren ongizate estatua garatzeko: zerbitzuak sortu ziren, inbertsioak egin, prestazioak eskaini eta abar.

Espainian, aldiz, frankismoaren eta trantsizio urteen ondoren hasi zen sortzen ongizate estatua, 1980ko hamarkadatik landa. Elkartasuna bermatzeko ardura familiak izan du bere gain. 1990eko hamarkadan, planteamendu liberalek geroz eta indar handiagoa zuten heinean, Espainiari esaten hasi zitzaion ongizate estatuaren garapena mugatu egin behar zuela, gastu soziala kontrolatu, zerbitzu batzuk pribatizatu... garapena oztopatu du horrek. Eta krisialdi ekonomikoa iritsi denean, ongizate estatu sendoena zuten herriek askoz ere hobeto egin diote aurre egoerari.

Herritarrak nola egokitu dira errealtate berrira?

2008an abiatutako krisi aurreko urteetan Espainiak defizit eta zorpetze publiko oso baxuak izan zituen, baina zorpetze pribatu oso handia, etxebizitzaren aferari –higiezinen burbuilari– lotua egon dena. Bankuek erraz eman dituzte maileguak eta norbanakoek zor handiak pilatu dituzte. Duela bost urte, EAEko herritarrek euren diru-sarreraren %42 hipoteka ordaintzeko erabiltzen zuten. Kopuru oso altua da, Europako gainerako herriekin alderatzen badugu.

Klase ertaina bete-betean harrapatu du horrek. Krisiak bultzatuta, jendeak gastuak murriztu behar izan ditu, aisialdi edo *konfort* gas-

tuak lehenengo, eta ezinbestean oinarrizko produktu eta zerbitzuak ondoren, arropak, elikadura eta etxebizitza kasu. Perfil desberdinetako familien etxegabetzeak ditugu horren lekuko.

Frantzian, hipoteka ordaintzeko mailegua eskatzen denean, gehienetan tasa finkoan izaten da. Denbora pasa ahala soldatek gora egiten dute eta hipotekaren proportzioak behera. Espainian tasa aldakorren sistema dago. Bankuek ez dute arriskurik hartzen eta beti dute bermatua etekina. Aitzitik, herritarrak ziurgabetasun handiagotan bizi dira: Euriborra ez dago haien esku eta hipotekak handitu egin daitezke. Ipar Euskal Herrian, oro har, ez da halakorik gertatzen.

Krisiaren aurretik kolektibo ahulenek sufritzen zuten prekaritatea, baina egun klase ertainari zuzenean eragiten dio eta bazterketa sozialaren zurrumbiloan sartu dira batzuk. Maila sozialak ez dira modu finkoan ulertu behar, dinamikoak dira.

Aldaketarako borondaterik sumatzen al duzu?

Klase ertainek ez dute nortasun kolektibo indartsurik, ez direlako ekintza kolektiboaren bidez sortu. Ondorioz, lehen aterabidea indibidualki bilatzen da. Hezkuntzan diru asko inbertitzen dute, lan munduan baldintza onekin integratzea eta bilakaera profesional egokia izatea bermatzen duelakoan. Egun, ordea, ziurgabetasun handia dago. Badakite ikasketarik gabe ez dagoela aterabiderik, baina karrera bat egiteak ere ez du deus bermatzen, garai batean bezala. Klase ertainak hauskortu egiten ditu horrek, bere baliabideak kognitiboak ere badirelako. Kapital kulturala garrantzitsua da etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Kapital ekonomikoa ez da nahikoa.

Ziurgabetasuna aditu ugarik aipatzen du.

Desklasifikazioaren beldurra oso inportantea da klase ertainetan, haien berezitasunetako bat baita estatusa sekula ez dutela erabat bermaturik.



Klase ertainek ez dute nortasun kolektibo indartsurik eta lehen aterabidea indibidualki bilatzen da. Hezkuntzan diru asko inbertitzen dute, lan munduan baldintza onekin integratzea bermatzen duelakoan. Egun, ordea, ziurgabetasun handia dago”

Lortu beharreko zerbait da. Goi mailako klaseek badute ondare bat, kapital ekonomiko altua, ikasketetan aurrera ez egin arren bizkarrak zainduko dizkiena. Aldiz, klase baxuenen sentsazioa da geroz eta aukera gutxiago dutela gora egiteko. Klase ertaina erdibidean dago, bere helburua da goi mailara hurbiltzea, baina behera jausteak kezkatzen du. Antsietate mailarik handiena klase ertainetan sumatzen da. Krisia baino lehen halazena, eta orain are gehiago.

Krisi egoeratan bi erreakzio gerta daitezke: esplosioa –mobilizazioa– edo inplosioa. Gizartean bigarrena nagusitu da. Jendeak agresibitatea bere kontra itzultzen du (depresio egoerak, suizidioak...) eta hori oso arriskutsua da.

Zergatik ez da esplosiorik gertatu?

Azken 30 urteetan lan kolektiboak desegin egin dira, prekarietateak gora egin du, ibilbide profesionalak indibidualizatu egin dira, soldadak ere bai... Enpresetan langile errotazio geroz eta handiagoa dago eta egonkortasun gutxiago. Langileen arteko elkartasuna kaltetzen du horrek, eta afiliazio sindikalean sumatzen da. Arazoa ez da soilik kontraktuala. Lan kolektiboak desegiteak estresa areagotu eta autoestimua txikitzen du. Geroari beldurrez begiratzen zaio, norbera bakarrik sentitzen delako.

Zein egiteko dute sindikatuek?

Sindikatuak sekula baino beharrezkoagoak dira. Ikusi da ekintza moduek –negoziazio kolektiboak, manifestaldiak edota greba orokorrek– eraginkortasun geroz eta urriagoa dutela, salbuespenak salbuespen. Eta mobilizazioek funtzio garrantzitsua dute: jendea aktibatu eta nortasun kolektiboa sendotzea. Etorkizunera begira oso inportantea da, nahiz eta epe motzean beharbada itxurazko emaitzarik ez ikusi.

Sindikatuak euren estrategia birplanteatu beharko lukete, lobby lana indartuz, esaterako. Bruselara begiratzen badugu, ohartuko gara enpresa ugari dituztela presio-taldeak, Europako Batzordeak hartzen dituen erabakiak baldintzatzea helburu dutenak. Hori garrantzitsua da, erabaki guneak ez daudelako hainbeste enpresetan eta estatu zein erkidegoetako erakundeetan, baizik eta *troika* osatzen duten Nazioarteko Moneta Funtsean, Europako Banku Zentralean eta Europako Batzordean.

Ekzerreko alderdiek ere egokitze beharra al dute?

Europako herri gehientsuenetan sozialdemokrazia eta ekzerreko alderdiak oro har nahiko galduta daude. Krisia hasi osteko hauteskundeetan alderdi horiek atera beharko lirateke indarturik, baina European kontrakoa ari da gertatzen. Eskuineko eta eskuin muturrekoak sendotu dira.

Espanian, herritarrek sentsazioa dute ezkerre boterera iritsita ere ez lituzkeela politika oso desberdinak aplikatuko. Are gehiago, eredu alternatiboa edukita ere, boto emaileek ez dute aukerarik ikusten ekzerreko politikak martxan jartzeko, erabaki ahalmena *troikak* duelako.

Etorkinekiko jarrera geroz eta mesfidatiagoa da.

Frantzia, esaterako, historikoki beti izan da immigrazio herria. 1980ko hamarkadara arte, lana zen etorkinen integrazio bektore nagusia,

eta sindikalgintzan isla zuen horrek, etorkin ugari afiliatu zelako. Aldiz, langabeziak gora egiten duen heinean, kontuan hartuta batez ere etorkinak edo haien seme-alabak direla kaltetuenak, lana ez da integrazio bektore lehen bezain inportantea.

Egoera larrian dagoen pertsona batek, babesa jasotzen duela sentitu ordez, bere burua isolatua ikusi eta albokoa mehatxu gisa hautematen du. Gainera, patronalak, eskuineko alderdiek eta komunikabide batzuek beldur horrekin jokatu eta kolektibo batzuk jomugan jartzen dituzte. Kolektibo batzuk identifikatzen dira norberaren egoeraren erantzule gisa eta horrek zatiketa eragiten du, gorroto handiagoa.

Inkestek erakusten dutenez, 2009tik landa euskaldunen ikuspegia etorkinekiko geroz eta negatiboagoa da. Gizarte laguntzak haiek jasotzen dituztela, babes ofizialeko etxebizitzak ematen dizkietela... jarrera xenofobo eta arrazistak ugaritzen ari dira. Momentuz, Espainian, PPK izan ezik, gai hori inork ez du politikoki instrumentalizatu, baina iritsiko da momentua, elektoralki errentagarria delako. Krisiak irauten badu, sektore zatikatuen baitan bereziki, horrelako diskurtsoak barruraino sartuko dira.

Zein berezitasun ditu Euskal Herriko klase ertainak?

Euskal Herria nahiko gizarte kohesionatua da, baina baditu lekuan lekuko bereizgarriak.

Gipuzkoan beste herrialdeetan baino ezberdintasun sozial txikiagoak daude. Badago espiritu komunitario bat, garai batean auzolana deitzen zitzaiona eta gaur egun kapital soziala. Jendeak elkar ezagutzeak komunitate izaera indartu eta diferentziak handiegiak ez izatea dakar.

Bizkaiko hirietan urbanizazio eta industrializazio fenomenoak indartsuagoak izan dira eta



BIZI KOLEKTIBOA

“Sindikatuak deitutako mobilizazioek funtzio garrantzitsua dute: jendea aktibatu eta nortasun kolektiboa sendotzea”.

horrek agian espiritu komunitarioa zertxobait ahuldu egin du. Merkataritzaren garapenarekin ezberdintasun sozialak areagotu dira eta gizartea klasistagoa bihurtu du.

Iparraldeari dagokionez, kostaldearen eta barnealdearen arteko desberdintasunez harago, elkartasun komunitarioak indarra dauka oraindik. Beste herri batzuekin alderatuta, Landekin edo Biarnorekin esaterako, nortasun kolektibo sendoa dago. Halaber, familia barruko elkartasunak indar handia du. Prekariatetari edo bazterketa sozialari aurre egiterakoan faktore garrantzitsua da, nahiz eta krisiak elkartasun mekanismo horiek ahuldu egiten dituen, familiko kide guztiak langabeziara bidal ditzakeelako.

Kapital sozial hori arriskuan al dago, beraz?

Langabeziak edota familiaren egonkortasuna apurtzeak momentu batean ala bestean kapital soziala ahulduko du. Hura sortzea zaila da eta desegitea erraza. Arreta handia jarri behar zaio solidaritate sare horri, hark eskainiko dituelako errekurtsio onenak jendea birgizarteratzeko. Pertsona batek lana edota etxebizitza galduz gero prestazio soziala jasoko du, baina familiarekiko edo lan munduarekiko harremanak erabat eteten baditu, bazterketa arriskua areagotu egiten da, eta autoestimua zartatu. ■



Imanol Esnaola

Gaindegiko
koordinatzailea

Klaseen arteko kontsentsurantz

Gaindegiko, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behatokiko koordinatzailea da Imanol Esnaola. Bizi dugun krisiaren erdian, gizarte klaseen arteko kohesiorako aukerak biderkatu egin direla azaldu digu. Elkarriketan esandakoak analisi moduan laburbildu ditugu.

Klaseak existitzen dira. Eta ez dut zalantzarik, klase baxua langile klasea da, desberdintasanak dauden arren. Urte hauetan imajinatzen ez genuen zerbait gertatu da: bankuetako eta enpresa handietako exekutiboak, soldata altuak zeuzkatenak, egun batetik bestera kale gorrira joan eta etxea ezin ordaindu dabilta. Zer da hori: klase ertaina ala langilea? Nire ustez, soldatapekoa den heinean langilea da. Enpresari asko langiletzat hartu beharko genituzke, ez baitugu ahaztu behar Euskal Herriko enpresen %90ak bederatzi langile baino gutxiago dituela. Nagusiak ere buzoa janzen du goizero.

EGIN BEHARREKO GALDERA HAUXE DA: ZUK ZER IZAN NAHI DUZU? ZEIN DA ZURE JOMUGA?

Alegia, klase ertainak eskubideak aldarrikatu ala pribilegioak bilatzen ditu? Biak ziurrenik, guztiok egiten dugun neurrian, baina ez dauzka eskura pribilegiozko posizioa mantentzeko baliabide finantzario eta teknologikoak, oligarkiak izan ditzakeen bezala.

Onura garaietan klase ertainak gorantz begiratzen du. Aldiz, krisi garaietan, egurtua

denean, diskurtsoa posizioa mantentzera bideratzen du. Momentu horretan gaude. Klase ertainean zein langile klasean kokatzen zen jendeak ikusi du sistemak kalte egiten diola eta berme handiagoa eskainiko dion ereduaren beharra dagoela. Herritarrak euren ahulezia sentitzen ari dira.

Klase ertainak oligarkiarekin mimetizatu nahi du. Hura imitatuko du sarri, jarrera hiper-zuzenduak hartuta. Indibidualismoan edo kontsumo ohituretan sumatzen da hori: hark duen etxebizitzaren antzekoa izan nahi du, marka bereko automobila, astebururo bidaiatzeko aukera... Eta oligarkiak balore sozialak gutxiesten baditu, berak ere bai. Klase ertainaren parte handi bat goi klasekoa bilakatzen da orduan, eta goi klase horren eraginkortasuna dagokion espektro soziala baino harago hedatzen da. Egia da krisi honen erdian zailagoa dela hala gertatzea, oligarkiak ez duelako promesarik eskaintzen. Baina zer gertatuko da eskaintzen dituenen?

Krisiak eragin dezake oinarrizko eskubideak galtzea: erretirorako eskubidea, oinarrizko diru baliabideak, etxebizitza... mendebaldeko ongizatearen gizarteak sustatu dituen baloreak auzitan daude. Eroso bizi zen klase ertain zabal horrek,

azpiegitura, osasun zerbitzu eta irakaskuntza publikoaren gainean konfiantza zeukanak, ikusi du hori guztia agian ez zela benetakoa eta posizio sozialak ez direla egonkorrak. Konfiantza zartatu egin da.

Estatuak daude klase ertainak daudelako. Desagertzeak diktadura ekarriko du. Subjektu orekatzailea dira, Bigarren Mundu Gerraz geroztik ez da egon elementu eragileagorik. Orain ahulduta dago, ordea, eta estatuak oso kontzientea dira.

Euskal Herrian klaseen auziari beste osagai bat gehitu behar zaio: eskubideen ikuspegitik Frantzia eta Espainia ez dira berdinak. Frantziaren kasuan, berdintasunaren kontzeptuak oso Estatu garantista egin du. Oinarrizko errenta hegoaldekoaren bikoitza da, adibidez. Eta langile borrokari esker, profesionalek badituzte hainbat berme soldatari, formazioari edota lan mundura arrakastaz hurbiltzeko aukerei dagokienez. Espainiak, aldiz, ez du hainbeste berme eskaintzen. Oligarkiak pisu handia du, gainera. Haren interesak gailentzen dira eta berdintasunaren printzipioa bigarren mailan geratzen da.

EUSKAL LOGIKA BATEK ELKARREN BEHARREAN JARRIKO AL DITU KLASE BATZUK ETA BESTEAK?

Gizarte kohesioa mantentzeko, egitura administratiboek bermeak eman behar dituzte. Orain, prekaritateak geroz eta jende gehiago jipoitzen duenez, kontsentsu berriak lortzeko aukerak sor daitezke.

Begira Kataluniari. Espainiak ezartzen dion eskema ekonomiko guztiz desorekatuak, ia lapurretara iristen denak, kointzidentzia bat eragin du. Burujabetasun aldarria parametro positibotara ekarri du. Euskal Herrira itzulita, langile klasearentzat burujabetasuna onuragarria litzateke, murrizketa guztiek haren aurka egiten dutelako.

Oligarkiari dagokionez, badirudi azken urteetan ikusten ari garela *Espainia* markaren gainbeherak estatuarekiko mesfidantza eragin duela. CiU da adibide. Hemen ere, funtzionarioei ordainsaria kendu zietenean... Espainiako arau batek EAeko soldatak bertan behera utzi badituzke zirkunik egin gabe, zer ez ote duten egingo apur bat gehiago tematzen badira!

Posible al da Euskal Herrian klase arteko kointzidentzia bat lortzea, elkarrekin hobeto gaudela demostratuko duena? Askok ezetz esango dute, baina hotz pentsatuta erantzunak baiezkoa behar luke. Prozesu zail eta luzea izango litzateke, noski, baina kontsentsuek goiz ala berandu etorri beharko dute. Herri bat eraikitzeke elkar hartzea beste modurik ez dago, kontuan izanik langileriak izan behar duela elementu funtsezko eta onuraduna. Klase ertainaren eta goi klasearen arteko adostasunak lortu behar dira. Nazio ikuspegitik, klase ertainaren krisialdi honek gauzak argiago uzten ditu.

LURRALDE KRISIA

Krisi ekonomiko hau lurralde krisia ere bada, Ipar Euskal Herriko datuek erakusten duten moduan [ikus 12. orriko koadroa]. Hiru ezaugarri ditu: Iparraldearen menpekotasuna Frantziako gainerako zonaldeekiko; barnealdearen menpekotasuna kostaldearekiko; eta kaltetutako bi gizarte multzo, euskaldun laborariak barnealdean, eta frantses herritarrak kostaldean.

Batzuen erabakiek besteenak baldintzatzen dituzte. Kostaldekoek etxe merkeagoak behar izanez gero barnealderago erosiko dituzte. Nekazaritzarako lurretan etxebizitzak eraikiko dira, lurralde antolamendua aldatuko da, errepideak eta egin beharko direlako... Errenta diferentziak lurralde praktika desberdinak ekartzen ditu eta kasu honetan baliabideak dituenak lurralde politika inposatzen du, Euskal Herriko Laborarien Batasunak (ELB) salatu duen moduan.



ENDYR'S TOY BOX

Ipar Euskal Herriak ez du bere beharrei erantzuten dien ordenamendurik. Kanpotik ezarririkoa den heinean, dinamika kaltegarriak eragiten ditu. Zentzu horretan, zonalde euskaldunenak dira pobreenak, zahartuenak, baliabidez urriena... Iparraldeak bere lurraldea arautzeko eskumenik ez duen aldetik, hegoaldearekin dituen balizko kointzidentzia estrategiakoak garatzerik ez dauka. Ezin ditu sinergiak baliatu.

Lurralde Elkargoaren aldeko aldarria ingurumari horretan kokatu behar da. Iparraldeak bere burua Frantziaren aurrean desberdintzat –euskaldun gisa– aurkeztea oso inportantea da. Osagai funtzionalak ditu, gainera: ekonomia, formazioa, lurraldea, identitatea... Nahiz eta Estatuak bermatzen dituen kontsentsurako oinarrizko elementuak –pentsioak–, geroz eta gehiago dira kalte-tutako enpresa eta lurraldeak, eta horrek kointzidentzia batzuk eragin ditu. Krisi ekonomikoak irekitzen dituen atek lotura handia daukate lurraldearekin, termino kolektiboetan ulertuta. Kalteak denok sufritzen ditugu eta egoera aldatzeko guztion parte hartzea eskatzen du. Iparraldean garbi ikusi da.

Hego Euskal Herriaren kasuan, Espainiak eskaintzen zituen bermeak desagertzen ari dira. Murrizketak aplikatu dira, legeak aldatu... eta horrek guztiak auzitan jarri ditu ziurtzat ematen ziren hainbat kontu. Egun badaude kontsentsuak eraikitzeko aukerak. Lortuko ote diren ez dakit, baina beharra behintzat badago.

Jendeak badaki guztiok norabide berean goazela. Gure kasuan, gainera, lurralde-osagaia dago. Alegia, Espainiak Hego Euskal Herri osoa izorratzen du. Baditugu elementu kolektibo saihestezinak, ongi baliatzen ikasiz gero mesede egingo liguketanak.

Gaindegiaren ikuspegitik, Euskal Herrian ezinbestekoa da biztanle eta sektore guztientzat onuragarria izango den aberastasunaren banaketa orekatuagoa eta eskubideen bermea ekarriko duen errealitatea finkatzea. Arazo beraren aurrean elkarlanean aritu behar izatea ekar lezake horrek, eta eragile sozio-ekonomikoek ekarpenak egin beharko ditugu. Lehendabiziko pausoa nork eman beharko duen? Erabakitzeko ahalmena dutenek, nork bere mailan: sindikatuek, enpresariak, administrazioek, irakasleek, kazetariak... Lankidetzak Euskal Herria izan behar du abiapuntu eta helburu. ■

ERRENTA IPAR EUSKAL HERRIAN

Ipar Euskal Herrian urteko errenta gordina pertsonako 16.830 eurokoa da (2009). Banaketa funtzionalari erreparatzen badiogu, kostaldean errenta pertsonalaren balioa 17.659 eurokoa da, bitarteko zonaldean 17.118 eurokoa eta barnealdean 12.857 eurokoa. Azken hamarkadan errentaren hazkunde orokorra nabariagoa izan da barnealdean (%75ekoa) eta bitarteko zonaldean (%58,7) kostaldean (%35,6) baino. Horrek, modu apalean bada ere, orain hamar urte arteko desorekak apur bat leundu ditu, Gaindegiaren *Ipar Euskal Herriko errenta* txostenean irakurri daitekeenez.

Desorekak familia errentaren arabera neurtuz gero argazkia aldatu egiten da. Errentak barnealdean kostaldekoa baino apalagoa izaten jarraitzen du baina familia errenta altuena bitarteko zonaldean dago (34.150). Lurraldeek dituzten familia egitura eta lan jarduera ezberdinei erantzuten diete horrek.

Klase ertaina munduan

ERRESUMA BATUA ETA AEB: IRABAZTEKO, ZATITU

AEBetan, klase ertainak azken mendean izan duen hazkunde ustez gera ezina eten eta kontrako bidea hasi du. Obamaren aholkulari taldeko Alan Krueger ekonomialariaren arabera, 1970eko hamarkadan herritarren %51 zen klase ertainekoa, eta gaur egun %42. Etxebizitzaren balioaren gainbeherak eta zerbitzu publikoen degradazioak, irakaskuntza-arenak adibidez, presio bortitza egiten dute kolektibo horren gainean. Eta berdin Erresuma Batuan.

Owen Jones kazetari britainiarrak *The Demonization of the Working Class* (Langile klasearen demonizazioa) liburuan aztertu du nola Erresuma Batuko Gobernuak eta hedabideek pobreen arteko gorrotoa sustatzen duten euren boterea osorik mantentzeko. *Chavs* jendaila edo galtzaile bezala itzuli genezake kasu honetan. 1980ko hamarkadan Thatcherrek gidatutako ofentsiba neoliberalaren ondorioz lana galdu zuten herritarrek osatzen dute multzo hori.

“Goialdean dagoen jendeak pentsatzen du horra iritsi dela azkarragoa delako eta gogorrago lan egin duelako, behealdean dauden ‘alferrontziek’ baino”, azaldu dio Jonesek Maruxa Ruiz del Arbol *EiDiario.es* agerkariko kazetariari¹. “Gurasoek zure ikasketak ordaindu eta ekonomikoki babesteko baliabideak zituztela pentsatzea ez da hain erosoa”. Norbera da bere egoeraren arduradun eta erantzule bakarra, pobrea baldin bazara zeure errua da, zioen —eta dio— politikari zein hedabideek haizaturiko leloak.

Berdintasunerantz egiteko klase kontzientzia indartzea beharrezkoa dela uste du kazetari britai-



MIKE HIATT / FLICKR

niarrak: “Alderdi kontserbadoreak 1976an esan zuen arazoa ez dela klaseak izatea, klase sentimendua baizik. Komeni da guztiok klase ertainekoak garela etengabe errepikatzea, botere banaketak Ingalaterra victoriarrekoa dirudien arren. NBERen arabera, garatutako herrialdeen artean, ezberdintasun handienak britainiar gizartean daude. Kazetari aberats eta politikari akomodatuek horregatik ez dute klaseez hitz egin nahi. Estrategia oso zinikoe-kin zatikatu nahi gaituzte. Laguntza sozialak jasotzen dituen etorkina gorrotatu behar dugu, eta sektore ahulenak babesten dituen ongizate estatua demonizatu, gorantz begiratu beharrean”.

Egoera aldatu ahal izateko baliabideez galdetuta, grebak eta desobedientzia zibila tresna eragin-korrek direla dio Jonesek. “Ez dut indarkerian sinesten, baina gizartea aldatu nahi bada, behealdean daudenek ez dute goikoe-kin eskuzabal jokatu behar. Aldaketarako itxaropena duen jendeak aurrerapausoa eman behar du. Ezinbestekoa da esperantza izatea, etsipenaren aurrean ez makurtzea. Eraldaketak hiru osagai behar ditu: itxaropena, frustrazioa eta haserrea”.

(1) “La concentración de poder en Reino Unido ha vuelto a niveles victorianos”. *EiDiario.es*, 2013-03-30)

ESPAINIAKO ESTATUA: IDEOLOGIA NEO-LIBERALAREN PORROTA

Presio fiskal gogorra eta soldaten jaitsiera etengabekoa sufritzen ari da klase ertaina. Beldur da lana galduko ote duen, apenas du aurrezteko ahalmenik eta ez dirudi erretiroak bere beharrak aseko dituenik. Klase ertain-altuko pertsona ugari klase ertainera jausi da, han zeuden asko klase ertain-baxura, eta handik pobrezia-ateetara beste batzuk. Gizarte egituraz ez du jada erronbo itxura, aberats eta pobre kopuru txiki eta klase ertain zabalekoa, hareara-erloju batena baizik. Geroz eta pertsona gehiagoren diru-sarrerak eta estatus sozialak egin dute beherantz, erdialdean zulo handia utzita.

Andre Missé, 35 urtez *El País* egunkarian aritutako kazetari kataluniarra, sistema neoliberalaren porrotaz mintzo da²: “Oparotasun urteek betiko iraungo zutela sinetsi genuen, gizarteko sektore baten euforiak kutsatuta. Bukatu egin da, ordea. Eta [guretzat] okerragoa dena, milioika lagunek guk bezala bizi nahi duten uanean amaitu da. Pertsona horiek edozer egingo dute haien desioak betetzeko eta horrek berdintasun egoerara eramango gaitu. Eurak hobe bizi behar baldin badute, guk apur bat okerrago bizi beharko dugu. Gehitzen badiogu neurrigabeko finantza-sistema zuzentzen duen ideologia neoliberalak, hondamendiaren errezeta izango dugu. Bankuek eta finantza-zioak baldintzatzen duten errealtateak erakusten digu ideologia neoliberalak huts egin duela”.

Balitzko konponbideei dagokienez, fiskalitatearen aldaketak egin behar direla dio. “Jarduera politiko guztia lanpostuak sustatzera bideratu beharko litzateke, austeritatearen inguruan izan ditzakegun 50.000 eztabaidez gaindi. Politikarien ahotik astakeria galantak entzuten ari gara. Orain lanpostu gutxiago suntsitzen direla esaten digute. Faborez, langabezia gehiago dagoen neurrian, lanpostu gutxiago suntsituko dira. Ez gara umeak”.

BRASIL: KLASE ERTAINAREN GEZURRA

Munduko Bankuak (MB) emandako datuen arabera, hamar urtean %50 hazi da klase ertaineko biztanleria Latinoamerikan eta Kariben: 100 milioitik 152 milioira. Pobrezian bizi diren herritarrek, aldiz, %44tik %30era egin dute behera eta gaur egun paretsuak dira klase ertaineko eta pobreen kopuruak. Diru-sarrerak, etxebizitza egokia eta oinarritzko zerbitzuak jasotzeko aukera baliatu ditu MBk erreferentzia bezala besteren artean, baina biztanleria kontzeptu berri baten arabera sailkatu du: “Segurtasun ekonomikoa”. Alegia, berriro pobrezian jausteko arrisku-maila. “Klase ertainaren definizio horrek gehiago du zerikusia etorkizuneko egonkortasun ekonomikoarekin, jendeak gaur egun duen maila errearekin baino”, idatzi du *Rebelión* aldizkarian Juan Luis Berterretchek, Brasilen bizi den kazetari uruguaiarrak³.

Lau klase berezitu ditu Munduko Bankuak:

Klase ertaina: egunean 10-50 dolar artean irabazten dutenak (Latinoamerikako herritarren %30). Klase zaugarriak (pobrezian erortzeko arriskuan daudenak): egunean 4-10 dolar (%38). Pobrezian bizi direnak: egunean 0-4 dolar (%30). Elitea: 50 dolar baino gehiago egunean (%2).

“Sailkapen hori zabarkeria soziologikoa da, ‘klase ertain berriaren’ gezurra sartu nahi digute”, dio Berterretchek: “Egunean 10 dolar baino gutxiago irabaztea miserian bizirauten saiatzea da; MBko teknokratei gomendatuko nieke urtebetez ‘zaugarrien’ sarrerekin bizirauten saiatzeko”.

Brasilgo egoeraz mintzo, kazetari uruguaiarrak uste du ‘klase ertain berria’ kontzeptuak bi helburu dituela: proletalgotik bereiztea eta kapitalismo brasildarrak oraindik indarrean mantentzen dituen ezberdintasunak ezkatzea. Analisi bertsua egin du Eduardo Fagnani Unicamp zentroko ekono-

(2) “Nos falla la clase dirigente; los trabajadores españoles son muy apreciados en Europa” (*Jotdown.es*, 2013-04-05)

(3) *Los tramposos delirios de los tecnócratas del Banco Mundial (Rebelión)*, 2013-04-08

mialariak⁴: “Brasilgo klase ertain berriaren ideia ilusio hutsa da. Klase ertaina ez da diru-sarreraren arabera definitzen, gizarte-egitura duen posizioa-gatik baizik”. Pobrezia gainditu eta klase ertainaren parte izatera pasa direnak estatuaren laguntzen menpe daude oraindik ere, eta ez dira ikusten klase ertainari dagozkion bestelako ezaugarriak: atzerri-ara bidaiak, pentsio fondo eta eskola pribatuak...

TXINA: IRAULTZARIK EZ ORAINGOZ

Txinako klase ertainaz hitz egitean, haren hazkundea barne eta kanpo politikan zein eragin izango ote duen arduratzen ditu bereziki soziologo, ekonomialari eta politikariak.

Ehunka herritarren protestek petrolio-findegia bat eraikitzeke proiektua geratu zuten iaz Ningbo hirian. “Norberaren osasunak arduratzen ditu, bizi kalitateak, baina haien aldarrikapenak ez doaz urrunago”, idatzi du Sven Hansen kazetariak *Deutsche Welle* agerkarian⁵: “Ez dute eskatzen sistema politikoa eraldatu eta gizarte zibilak parte-hartze handiagoa izatea, Hego Korean edo Taiwanen gertatu den moduan. Klase ertainaren ezaugarrietako bat hori da: norberarena defendatzea iraultzari-ekin gabe; agintarekiko tolerantzia handia dauka”. Klase ertaineko lagun asko, gainera, Alderdi Komunistako eta estatu-aparatuko kide dira.

Hain justu, Alderdi Komunistak klase ertaina indartu nahi duela iragarri du, herrialdean egonkortasuna mantendu aldera. Txinako Gizarte Zientzien Akademiaren arabera, 60.000 eta 500.000 yuan arteko (6.400-53.000 euro) sarrerak dituzten familiak dira klase ertainekoak. 2009an 310 milioi lagun zeuden multzo horretan, biztanleriaren %23 inguru, 2001ean %15 zirenean. Gobernuaren asmoa da 2020rako %40ra heltzea.



SEE TATT YEO / FLICKR

Dena den, egonkortasun sozio-politiko maite eta demokrazia kaos politikoarekin lotzeak ez du esan nahi klase ertainak etorkizunean egoera eraldatzeko borondaterik izango ez duenik. Txinaparta sor dezaketen osagaiak badaude, ustelkeria kasuak eta lanik aurkitu ezin duten unibertsitateko ikasle ugari nora eza, esaterako.

Bien bitartean, ez da dudarik azken 20 urteotako gizarte aldaketek ondorioak izango dituztela ekonomian, energia kontsumoan eta ingurumenean. Munduaren grabitate-zentroa lekuz mugitzen ari da. Ekonomia globalean geratzeko eta pisu handiagoa daukaten Txina, India edota Brasilgo klase ertainek aktiboki egiten dute bultza, kontsumo potentzial izugarriak eta nazio-harrotasun berriak hauspotuta. Europa mendebaldeko eta AEBetako gobernuak kezka begiratzen diote fenomeno horri, globalizazioak etekin sinergikoak banatu ahal dituelako, baina funtsean efektuen batura zero delako⁶: Txinan sortzen diren lanpostuak AEBetatik desagertzen dira; Parisko ibilgai-luek kontsumitzen duten gasolioa prezioz igotzen da hazi egiten denean Mumbai hirian autoz ibiltzen den gidari kopurua, eta abar luzea. Gizarte oreka berrian lekuan-lekuko klase ertainek zein leku beteko duten ikusteke dago. ■

(4) *Rising affluence in Brazil's favelas* (Solveig Flörke, *Deutsche Welle*, 2012-12-26)

(5) *Stability counts for China's middle class* (*Deutsche Welle*, 2012-12-26)

(6) *Desoccidentalización* (Luis Bassets. *Del alfiler al elefante*, 2010-03-18)

*Astero
irakurle gehiagok
aukeratzen dute
independentzia*

Jada 58.000* gara.

